

IKUSMIRAN

Egoeraren azterketa

2021EKO MAIATZA

07

Ikusmiran

Egoeraren azterketa

Aurkibidea

SARRERA	5
ONDORIOAK	5
EUSKAL HERRIKO EREDU SOZIOEKONOMIKOAREN EZAUGARRIAK	8
BPGren bilakaera.....	8
Desberdintasunak desberdintasun, BPGk kolpe handia jaso du sektore guztietan	9
BPG biztanleko, desberdintasunen adierazlea.....	10
Industria pisua galtzen zerbitzuen mesedetan	12
Manufaktura industria gainbeheran Euskal Herrian eta Europan.....	12
Lan erreproduktiboak ekonomiaren oinarri	13
Soldaten garrantzia beherantz	15
Berrikuntza inbertsioa Europako batezbestekotik urrun.....	16
Ekonomia ehuna galtzen ari gara	17
Sektore batzuk gainbeheran, besteek goranzko joera	17
Establezimendu txikiak itxi dira, handien mesedetan.....	19
Establezimendu kopuruaren bilakaera desorekatua eskualdeka	19
Hego Euskal Herria Europaren azken postuetan presio fiskalari dagokionez.....	21
EREDU HAU EZ DA JASANGARRIA	22
Ondorioak ingurumenean	22
- Euskal Herritarron kontsumoa mantentzeko 3 planeta beharko genituzke	23
- Berotegi Eftukoko Gas (BEG) isuriak munduko batezbestekoaren oso goitik	23
Ondorio sozialak.....	24
Jardueraren arabera ordainsarrietan desberdintasunak	24
Soldatapekoen eros-ahalmenak beherantz egin du	25
Enpleguaren galera azken urtean	25
Langabezia.....	25
2020. urtean 22.500 lanpostu suntsitu dira Hego Euskal Herrian	25
Jatorri aniztatetik gurera etorritako langileen enplegua batezbestekotik gora galdu da	26
Langabezia neurtzeko langabezia-tasa baino gehiago neurtu beharra dago	27
Krisia eragin handia izaten ari da iraupen luzeko langabeziaren igoeran	28
Afiliazioa.....	29
Afiliazioa galdu dute jarduera gehienek.....	29
Besteren konturako langileen enplegua galdu da gehien	31
Emakumeak afiliazio osoaren %47	31

SARRERA

Azko Martxoan Covid-19aren zabalpenak eta berau ekiditeko muturreko neurriek sorturiko egoerak ustekabeen harrapatu zuen planetaren zati handi bat, baita Euskal Herria ere. Osasun krisiarekin batera, ordu arte agerikoak ziren beste hainbat krisi -krisi ekologikoa, zaintza krisia edota krisi ekonomiko- azkartu eta ikusgarriagoak egin ziren, krisia sistema osoarena dela, sistemikoa dela, ageriagoan geratuz.

Izan ere, helduen egoitzetan langileen segurtasun falta eta lan baldintza prekarioek, egoiliarren ongizate eta osasuna ezin bermatzeak, eskolen itxierak, bakarrik bizi ziren pertsonen egoerak etab. luze batek gure zaintza sistemaren porrota ikustarazi eta Euskal Herriak zaintza eredu berri baten premiazko beharra duela argi geratu zen.

Gainera, langabeziaren igoera ikusgarria izan zen eta desberdintasun sozialak ikusgarriago egin ziren: etxebizitza bat izan edo ez izan edota etxebizitzaren baldintza desberdinen araberakoak, lanpostua eta diru sarrera nahikoa eta duinak bermatuta ditzutenen eta enplegu prekarioa dutenen, diru-sarrera nahikorik ez dutenen edo enplegua bat batean galdu zutenen artekoak etab.

Naturan pertsonak eta sistemak egiten duten kaltea ere agerian geratu zen, izan ere, bat batean dena edo gehiena geratzeak, ikusgarri egin baitzuen bertako kutsatze mailak zenbaterainokoak izan ziren. Sistema honek planetaren biziraupena bera jartzen du zalantzan, eta suntsipen horretan herrialde batzuk besteek baino arduratu handiagoa dute, tartean Euskal Herriak: gure herrian dugun aztarna ekologikoaren arabera, Lurrean bizi diren pertsona guztiak euskal herritarron kontsumo maila bera balute, 3 planeta beharko genituzke bizirauteko. Eta horri, bertako Berotegi Eftukoko Gasen (BEG) *per cápita* isuriak mundukoa biztanleko isuriak bikoizten dituela gehitu behar diogu besteak beste.

Eta azkenik, osasun krisi larria bizi dugu, baina ez soilik Covid-19ak eraginikoa, gaixotasun eta patologia desberdinen zabalpena gero eta handiagoa baita. Baldintza sozialek, klima larrialdiaren ondoriozko ingurumen-prozesuek zein egoera patologikoa desberdinek eragin ezin negatiboagoak dituzte pertsonen osasunean eta ongizatean. Horregatik, 'pandemia' terminoa mugatua dela uste dugu eta 'sindemia' hitza dela erabili beharko genukeena, sistemaren krisi desberdinek herritarron osasun eta ongizate integrarean eragiten duten kaltea ulertu ahal izateko.

Elkar kateaturik dauden krisi hauek guztiak ordea ez dira izan 'kasualitatez' gertaturiko zerbait, hau guztia ez da zorte txarraren ondorio izan. Mundu osoa elkarloturik eta esplotaturik mantentzen duen sistema kapitalistaren ondorioz iritsi da egoera hau gurera, urtez urte 'gure' instituzio eta elite ekonomikoetatik elikatzen egon diren sistemak ekarri gaitu hona. Beraz, egun bizitzen ari garen egoeraren erantzuleak egon badaude, erabaki politiko batzuen ondorioz iritsi baikara egungo egoerara. Alternatiba, eredu neoliberal horren sakontzean topatu dezakegu horrek ekartzen dituen ondorio tamalgarriez jakitun izanik edo norabidez erabat aldatu eta natura eta bizitzarekin orekan egongo den, desberdintasun sozialei aurre egingo dien eta herriaren beharrezko ekonomia eredu izango duen Euskal Herriaren eraikuntzak urratsak ematen has gaitzke. Guk, bigarren honen aldeko hautua egina dugu.

ONDORIOAK

- Sindemiaren ondorioz hartu dituzten neurriek enpleguaren galera garrantzitsua ekarri dute, eta iraupen luzez langabezia dauden langileen kopurua etengabe ari da hazten.

Sindemia hau osasun ondorio larrirez gain, ondorio sozial handiak uzten ari da gurean. Hego Euskal Herrian 2020an 22500 lanpostu suntsitu dira eta langabezia-tasa orokorra %10,4ra igo da. Gazteen eta migranteen enplegua izan da batezbestekotik gora galdu dena, eta iraupen luzez langabezia dauden langileen kopurua etengabe ari da hazten.

Edonola ere, enpleguaren bilakaera aztertzeko, langabezia gain euren borondatearen aurka lan gutxiegiako egoeran dauden langileen errealitatea ere jaso beharra dugu. Termino horrek langabezia dauden pertsonen gain, enplegu gabe egonagatik lan bila ez dabilen pertsonak baina lanerako prest daudenak, azpienplegatutako langileak, hau da, lanaldi osoan lanik aurkitzen ez dutelako euren borondatearen aurka lanaldi partzialean ari direnak eta Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Txosten (EABET) baten pean dauden langileak ere barnebiltzen ditu. Bada Hego Euskal Herrian lan gutxiegiako egoeran dauden langileen portzentaia urtebetean %18tik %22ra igo da.

Enpleguaren galera bere horretan arazoa izateaz gain, gogoan izan behar dugu 2008ko krisiaren ondorioz galduriko enpleguaren errekupezioa prekarizaturiko enpleguen bidez etorri zela. Oraingoan hori horrela gerta ez dadin, egiturazko aldaketaz gain, lan-erreformaren indargabetzea ezinbestekoa izango da.

- Euskal Herriko industria gainbeheran dago eta ekonomia tertziarizatzen ari da azken urteetan.

Industriak oraindik orain Euskal Herriko ekonomiaren zati garrantzitsua betetzen duen arren, azken urteetan industriaren gainbehera nabarmena izan da. Ia Europa osoan gertatzen ari den fenomeno izanik, Euskal Herrian 12 urtetan Barne Produktu Gordinaren (BPG) %27,5 izatetik %24ra pasa da, galera handiena manufaktura industriak izanik. Gainbehera honen adierazle dugu ekonomia ehunaren bilakaera ere, izan ere, manufaktura industriak establezimenduen %20 baino gehiago galdu du azken hamar urteetan. Sindemia garai hau ere norabide berean sakontzeko baliatu du lantegi industrial ugari: urtebetean manufaktura industrian lan egiten duten besteren konturako 6400 enplegu galdu baitira.

Neoliberalismoaren logikan mozkinak handitu asmoz manufaktura asko Europatik beste herrialde batzuetara, Asiara batik bat, eraman da, eta horrek gure industria sarearen galera eragin du. Industriaren gainbehera eragin duen beste arrazoi bat, Euskal Herrian lerketa eta Garapenera bideratzen den gastu murrizta litzateke. Izan ere, Europako batezbestekotik urrun dago egun, eta gainera, azken urteetan berrikuntza inbertsioak beheranzko joera izan du. 2008ko krisiaren ondorioz galtzen lehena teknologia baxuko industria izan zen, eta gainera, behin galdu ondoren ez zen errekupeatu industria hori.

Industriaren gainbehera hau gainera beste sektore batzuen mesedetan ari da gertatzen, tertziarizazio prozesuan sakonduz. Establezimendu kopuruei dagokionez hezkuntza, osasungintza eta energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren horniduraren igoera azpimarratuko genituzke. BPGean zerbitzua da gehien hazi den sektorea, 12 urtetan %61,46 izatetik %68,88 izatera igaro baita.

Edonola ere, zerbitzuen sektorea oso anitza dela kontuan izan behar dugu, eta sektorea bera sindemiaren ondorioak oso modu desorekatuan ari dela bizitzen. Azken urtean ostalaritzako langileen enplegua izan da gehien galdu dena, erregimen orokorreko afiliazioaren %15,3 galduz (10080 langile). Osasungintza da igoera izan duen sektore bakantekoa, %3,3ko igoerarekin (4220 langile), egoerak eskatzen zuen igoeratik urrun hala ere. Izan ere, zerbitzu publikoak desmantelatze bidean daudela ukalezina da, sindemiaren testuinguruan puntualki indartu behar izan dituzten arren, egoeraren premiak eskatuta. Eta gainera, indartze hori neoliberalismoaren logikatik eginiko mugimendua izan da, behin-behineko langileak kontratatu baitituzte premiazko egoerari erantzun ahal izateko, osasungintzaren arazo estrukturaleri aurre egin beharrean.

Ekonomiaren desindustrializazioari berrikuntza inbertsio eskasa gehitzen badiogu, enplegu kualifikatuaren galera etorriko da, eta hori, prekarizazioan sakontzeko beste elementu bat izan daiteke. Gainera, jakin badakigu tertziarizazio prozesuak ere ondorio bera, enpleguaren prekarizazioa, ekartzen duela. Izan ere, sektoreka soldaten kopuruak aztertu ditugunean, gaur gaurkoz industria da soldata maila altuenak eskaintzen dizkigun sektorea.

Euskal Herriak bere herri eta jendearen beharrak aseko dituen ekonomia egitura indartsuak behar ditu, kontsumo orekatu baten ondoriozko beharrak aseko eta ingurumena errespetatuko dituen industria eta zerbitzuak alegia.

- Euskal Herrian azken urte luzeetan administrazioek elite ekonomikoen bultzadarekin garatzen dituzten politiken ondorioz gertatzen ari den prekarizazio prozesuak soldaten gainbehera ekarri du. Izan ere, sortzen diren mozkinak eta aberastasuna patronalaren aldera bideratzeko hautua egina dute, soldaten pisuaren kaltetan.

BPGean soldatek duten garrantzia beherantz doa azken urteetan Hego Euskal Herriko datuek erakusten digutenez. Azken 10 urteetan soldaten balioa BPGaren ia erdia (%49,8) izatetik %45,7 izatera igaro da. Gainera, Europako beste herrialdeekin alderatuz datu hau, ongizate eta aberastasun maila altuenetan kokaturiko herrialdeen joera guztiz bestelakoa da, herrialde horietan soldaten garrantzia indarra hartzen ari baita urtez urte.

Datu horri, soldatapeko langileek azken 10 urteetan eros-ahalmena galdu dutenarena gehitu behar diogu, soldatek izan duten bilakaera negatiboaren dimentsioaz jabetu ahal izateko.

- Ordaindu gabeko lan erreproduktibo gutxiago egiten bada ere, ekonomiaren oinarri izaten jarraitzen dute.

Oraindik ekonomiaren sustengu nagusia izaten jarraitzen duten ordaindu gabeko zaintza eta etxeko lanen balioa ez da aintzat hartzen BPGean, baina badira hurbilpen bat eskaintzen dizkiguten hainbat azterketa lan horiei balio monetario bat emanez.

EAEko datuak soilik aztertu ahal izan ditugu, eta 1993tik gaur egun arte lan hauek jaitziera handia izan dute, BPGaren %46,9 izatetik %27,7ra igaro baitira. Nolanahi ere, nagusiki emakumeok burutzen ditugun lan hauek, industriak BPGean duen balioa baino altuagoa izaten jarraitzen dute, ekonomiaren oinarri nagusi bat izanez.

Etxeko lanak xehatuz, zaintza lanei orain 25 urte baino denbora gehixeago eskaintzen diegu, igoera handiena helduen zaintzak izanik. Jendartearen zahartzea eta zaintza beharren areagotzea errealitatea den garai honetan igoera xume hori izateak ez du ekidin zaintza lanen merkantilizazioa azkartzea esplotazio eredu berrietan sakonduz. Bestelako etxeko lanei eskainiriko denbora ordea nabarmen jaitsi da. Honen atzean arrazoi bat baino gehiago egon daudela jakitun izanik, emakumeek enpleguari eskainiriko denbora hazi egin dela eta horrek lan erreproduktiboei denbora gutxiago eskaini behar izatea ekarri duela aipatzea garrantzitsua iruditzen zaigu. Ondorioz, lan horietako batzuk merkatuaren esku utzi dira, eta zaintzarekin gertatzen den bezala, prekarizazioan sakondu da.

- Hego Euskal Herria Europarekin alderatuz azken postuetan dago presio fiskalari dagokionez.

Herrialde bateko administrazio publikoek bere herritarrei kalitatezko zerbitzu publikoak eskaini ahal izateko ezinbestekoa du diru-sarrera nahikoa bermatua izatea. Hori horrela izan dadin, herrialde bakoitzak politika fiskaleko irizpideak ezarri beharko ditu, presio fiskal handiagoa edo txikiagoa ezariz herrialde horretako langile, enpresa edota kapitalari. Halaber, politika fiskala aberastasunaren banaketarako tresna garrantzitsua izango da.

Bada, Hego Euskal Herriko presio fiskala Europako beste herrialdeekin alderaturik oso azpitik dago. Herritarron ongizatea bermatzeko nahiko dirurik ez omen dagoen honetan, politika fiskalaren eraldaketa baterako nahiko tarte badagoela erakusten digute datuok. Bi helbururi erantzun beharko lioke aipatu eraldaketak: aberastasunaren banaketa orekatuago bat lortzea batetik, eta administrazioen diru-sarrerak nabarmenki handitzea bestetik, zerbitzu publikoen kalitatea hobetze bidean.

EUSKAL HERRIKO EREDU SOZIOEKONOMIKOAREN EZAUGARRIAK


BPGren bilakaera

Barne Produktu Gordina (BPG) lurralde batean aldi jakin batean ekoizten diren ondasun, zerbitzu eta inbertsio guztien balioaren batura da; gaur egun, herrialde baten bilakaera ekonomikoa neurtzeko modurik erabiliena.

Sistema kapitalistan, ekonomiaren bilakaera positiboa ezinbesteko hazkunde mugagabearekin lotu da. Eredu hau ordea ez da jasangarria, ez ekologikoki eta ezta sozialki ere. BPGren bilakaera jendarte baten ongizatearen isla gisa ulertzen den arren, errealitatea horrela izatetik urrun dago. BPGren hazkundeak, mugatuak diren baliabide naturalen ustiaketa dakar eta gure planetaren biziraupena bera jartzen du arriskuan. Gainera, hazkunde faseak ez dakarrela herritarren ongizate mailaren hobekuntzarik erakutsi digute azken urteek, eta hazkunde horrek sorturiko aberastasuna gutxi batzuen eskuetan metatzen joan dela (Ikus "Euskal Herriko Langileriaren Lan eta Bizi Baldintzak" 2020ko Urriko Ikusmiran txostena). Horrez gain, BPGk egun balio ekonomikoa duten sektoreak soilik neurtzen ditu, bizitzaren sostengarritasunarentzat hain beharrezkoak diren zaintza eta etxeko lanak albo batera utziz.

Euskal Herriko BPGk hazkundea izan du azken urteetan. 2020rako zeuden aurreikuspenen arabera urte horretan BREXITa edo AEB eta Txinaren arteko gerra ekonomikoa ziren arrisku nagusiak, baina Covid-19aren ondorioz jazotakoak esperetokoa baino *shock ekonomiko* handiagoa eragin du, BPGren erortze garrantzitsua eraginez.

BARNE PRODUKTU GORDINA: URTE ARTEKO BILAKAERA



Euskal Herriak Ameriketako Estatu Batuen (AEB) hazkunde tasa berdintsua izan du azken urteetan, EB-27 eta Europako beste hainbat herrialderen gainetik igoz. 2020ko erorketa ordea oso handia izan da, hazkunde maila berdintsuetan egon diren herrialde gehienetan baino handiagoa, eta Europarekin alderatuz, herrialde gutxi dira Euskal Herriak baino BPGren atzeraldi handiagoa izan dutenak (Espainiako estatua, Grezia, Erresuma Batua eta Montenegro).

Euskal Herri barruko banaketa administratiboa kontuan hartuz, Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE) izan du Nafarroa Garaia baino atzeraldi handiagoa epealdi honetan. Ipar Euskal Herriko daturik ez dugunez, Euskal Herrikoa kalkulatzeko garaian Frantziako estatukoa hartu dugu aintzat.

BPG URTE ARTEKO BILAKERA (%)

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020 (p)	2021 (a)
EUSKAL HERRIA	1,3	-3,7	0,9	0,7	-1,7	-1,4	1,5	2,8	3,0	2,8	3,0	2,2	-9,3	7,8
HEGO EH.	1,3	-3,7	0,8	0,6	-1,9	-1,6	1,6	3,0	3,2	2,9	3,1	2,3	-9,2	8,0
EUSKAL A.E.	1,2	-4,1	0,7	0,3	-2,0	-1,7	1,6	3,0	3,3	2,8	3,1	2,2	-9,5	8,6
NAFARROA GARAIA	1,9	-2,5	1,2	1,6	-1,6	-1,3	1,5	2,9	2,9	3,2	3,2	2,6	-8,3	5,9
Mundua	2,9	-0,5	5,3	4,0	3,3	3,4	3,5	3,3	3,1	3,7	3,4	2,7	-4,2	4,2
Txina	9,7	9,4	10,6	9,6	7,9	7,8	7,4	7,0	6,8	6,9	6,7	6,1	1,8	8,0
AEB	-0,1	-2,5	2,6	1,6	2,2	1,8	2,5	3,1	1,7	2,3	3,0	2,2	-3,7	3,2
EB-27	0,3	-4,5	2,1	1,7	-0,8	-0,2	1,4	1,9	1,8	2,7	1,9	1,3	-7,5	3,6
Alemania	0,7	-5,6	4,0	4,0	0,6	0,6	2,2	1,2	2,1	2,9	1,3	0,6	-5,5	2,8
Erresuma Batua	-0,3	-4,1	2,1	1,3	1,4	2,2	2,9	2,4	1,7	1,7	1,3	1,3	-11,2	4,2
Frantziako E.	0,1	-2,8	1,8	2,2	0,4	0,6	1,0	1,0	1,0	2,4	1,8	1,5	-9,1	6,0
Espainiako E.	0,9	-3,8	0,2	-0,8	-3,0	-1,4	1,4	3,8	3,0	3,0	2,4	2,0	-11,6	5,0


(p): Behin-behineko datua.

(a): Euskal erakunde ofizialek eta OECDk egindako aurreikuspena. Nafarroa Garaiko kasuan, Funcas eta BBVak egindako aurreikuspenen batz besteko datua aintzat hartu da. Ipar EHri Frantzia osoko aurreikuspena aplikatu zaio. Denek osasun krisiaren bilakaerarekin lotzen dituzte aurreikuspen horiek.


Iturria: EUSTAT, NASTAT, INSEE, EUROSTAT, OECD eta GAINDEGIA.

Desberdintasunak desberdintasun, BPGk kolpe handia jaso du sektore guztietan

BPGren hiruhileko bolumen-indize kateatua aztertuz, BPGren uzkuak kolpe handiena 2020ko bigarren hiruhilekoan jaso zuen. Gainera, modu desberdinean eragin zion sektore bakoitzari: industria izan zen jaitsiera nabarmenena izan zuena %22,1eko jaitsierarekin, lehen sektorea ordea gutxien jaitsi zena, %2,9 hain zuzen ere. Hirugarren hiruhilekoan BPGren jaitsiera apalagoak neurtu genituen, sektoreen arteko desberdintasunak leunduz.



Iturria: EUSTAT, NASTAT eta GAINDEGIA

BPG biztanleko, desberdintasunen adierazlea

10

Biztanleko BPGri dagokionez, Euskal Herria EB-27aren batezbestekotik goitik kokatzen da, beraz, konparatiboki aberastasun maila altua sortzen da bertan.

Euskal Herrian bertan sorturiko aberastasun hori ez da modu orekatuan banatzen ordea, pertsonen arteko desberdintasunak gero eta ageriagoak izanik. Ondorio horretara iritsi ginen 2020ko Urrian publiko egin genuen "Euskal Herriko langileriaren lan eta bizi baldintzak" Ikusmiran txostenean. Aberastasunaren banaketa neurtzen duten Gini eta S80/S80 adierazleak aztertu genituen EAE eta Nafarroa Garaian, eta oraindik orain gurean aberastasunaren banaketa desorekatua da, eta azken urteetako bilakaerak noranzko berean goazela adierazten du.


Orain ordea, herrialdeen arteko desberdintasunak eta euren bilakaera aztertzeke parada izango dugu.

Europar *per cápita* errenta baxuena duen herrialdea, altuena duten biak, Frantziako eta Espainiako Estatua eta EB-27ko batezbestekoa hartu ditugu erreferentzia gisa azken hamar urtetako bilakaera aztertzeke. Dagoeneko herrialdeen arteko aldeak izugarriak baziren, hamar urtetan herrialdeen arteko desberdintasunek gorantz egin dute, biztanleko BPG altuena duten herrialdeen igoera beste herrialdeena baino azkarragoa izan da. 2019an biztanleko BPG baxuena zuen herrialdea Albania zen, altuena ordea Luxemburgo. Bada Luxemburgoren biztanleko BPG Albaniarena baino 21 aldiz handiagoa izan zen.

Kasu honetan, aberastasunaren metaketa aztarna ekologiko handi batekin lotu beharrean gaude. Izan ere, Luxemburgo da Europar biztanleko aztarna ekologiko altuena duen herrialdea: Europako batezbestekoa oso altua izanik, biztanleko 4,56 hektarea, area altuagoa da Luxemburgokoa: 13 hag.


Nazioartean ez ezik, Euskal Herrian ere baditugu lurraldeen artean aldeak eta desorekak. Lurralde nazional osoa ezin izan badugu aztertu ere, EAEko datuak ekarri dizkizuegu, maila nazionalean gertatzen denaren isla izan daitekeelakoan.

EAEan, biztanleko BPG handiena Arabako Errioxan dugu, ardogintzaren presentzia handiaren ondorio. Añana, Arabako Ibarak, Gorbeia inguruak, Durangaldea edo Debagoiena ere kopuru handienetan dauden eskualdeak dira. Txanponaren beste aldean Enkarterriak, Eskumaldea, Lea Artibai eta Busturialdea, biztanleko BPG txikiarekin.



Gainera, azken hamar urteetako bilakaera aztertuz, eskualde askok ez du berreskuratu oraindik 2008an zuen *per capita* BPG. Zentzu horretan, eskualde kaltetuenak Enkarterriak, Gorbeia inguruak, Debagoiena eta Kantauri Arabarra ditugu. Donostialdea eta Bilbo Handiaren bilakaera oso bestelakoa da ordea. Izan ere, balio erantsi handieneko jarduerak metropolieta metatzen ari dira inoiz ez bezala.

BPG BIZTANLEKO (€/URTEAN) ESKUALDEAK - EAE



Industria pisua galtzen zerbitzuen mesedetan

Oraindik orain Euskal Herriko ekonomiak nortasun industrial handia du, baina ekonomiaren izaera industrial gero eta ahulagoa da. Zerbitzuen sektoreak gero eta pisu handiagoa du Euskal Herriko ekonomian, are gehiago 2008-2015 epealdian eraikuntzak izaniko uzurtzea eta gero.

BPGREN OSAKETA JARDUERA ADARREN ARABERA EUSKAL HERRIAN (%)



Iturria: EUSTAT, NASTAT eta EUROSTAT. GAINDEGIA.

12

Gaur egun, industriak BPGk neurtzen dituen ondasun ekonomiko guztien %24 sortzen du, gehientsuena manufaktura industrian. 2008an %27,5ekoa zen zenbateko hori.

Zerbitzuen bilakaerak kontrako norabidea izan du. 7 puntu baino gehiagoko igoera izan du 2008tik 2020ra, gaur egun BPGk neurturiko ondasun ekonomikoen %68,88an kokatuz.


Ikusmira honen hurrengo ataletan ikusiko dugun moduan, industria da oraindik orain soldata maila altuena duen sektorea, eta bere gainbeherak soldata maila baxuagoko sektoreen mesedetan, langileriaaren prekarietatean sakontzen laguntzen du.

Manufaktura industria gainbeheran Euskal Herrian eta Europan

Azken hamarkadan Euskal Herrian gertatu bezala, Europako herrialde gehienetan industriaren pisua ahuldu egin da ekonomian. Neoliberalismoaren logikan, mozkinak handitu asmoz manufaktura anitz Europatik kanporatu dira, batez ere Asia aldera eramanez produkzio hori. Sistema honen ondorioz, pandemiak beharturik enpresak gelditu aurretik ere Asiatik zetozen materialen eskasiak eragina zuen Euskal Herriko lantegietan, eta gaur egun ere, hainbat sektoretan produktu batzuk lortzeko zailtasunekin jarraitzen dute.

Europako herrialde gehien gehienek manufaktura-industria kanporatzeko hautua egin dute. Salbuespen nagusiak datuon arabera Irlanda eta Ipar Mazedonia ditugu, eta gehien kanporatu dutenak Finlandia eta Malta. Euskal Herriaren manufaktura industriaren kanporatze maila EB-27 batezbestekoaren goitik kokatzen da.

MANUFATURA INDUSTRIA BPGN (%)



OHARRA: Irlandak egoera fiskal berezia du. Ondorioz, bertan kokaturik dauden multinazionalen kopurua altua da, eta horrek bertako egoera ekonomiko eta laborala besteekin alderatu ahal izatea desitxurutzen du.


Iturria: EUSTAT, NASTAT, EUROSTAT eta GAINDEGIA

Lan erreproduktiboak ekonomiaren oinarri

Bizitza sostengatzeko hain garrantzitsuak diren eta eremu pribatuan egiten diren zaintza eta etxeko lanek ez dute islarik BPGean. Lan horri balio bat emateko helburuarekin lan eta publikazio ugari egon dira, denak ondorio arras desberdinetara iritsiz.

Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LNE) 2018an ordaindu gabeko lan erreproduktiboak mundu mailan BPGren %9 zirela ondorioztatu zuen 'Care work and care jobs for the future of work' (zaintza-lana eta zaintza-langileak, lan duina izango duen etorkizunerako) txostenean. Azterlan berean, Espainiako Estatuaren kasuan %14,9ra igozten zuen aipatu lanek izan beharko luketen pisua BPGean.

BPG SEKTOREKA ETXEKO LANAK KONTUAN IZANIK EAE 2018 (%)



Iturria: EUSTAT. Etxeko lanaren kontu satelitea

Gai honen inguruan Parisko Ikerketa Politikoko ikerlaria den Marta Dominguez soziologoak gai honen inguruan Espainiako Estatuan ordu arte eginiko azterketarik sakonena aurkeztu zuen 2019an. 2010eko datuak erabili zituen, eta lan erreproduktiboak Espainiako Estatuaren BPGren %40,77ko balio ekonomiko aitortu zien.

Euskal Herriari dagokionez, Eustatek EAEko datuak eskaintzen dizkigu. Ez dugu beste herrialdeen daturik aurkitu tamalez, baina EAEko datuek interesa dutelakoan jasotzea erabaki dugu.

EAEko datuen arabera, burutzen diren lan erreproduktiboek BPGren %27,7ko balioa dute, industriak duena baino balio altuagoa.

Gainera, urtez urte, lan horrek esparru pribatuan duen balioak behera egin du nabarmen. 1993an BPGren %46,9 izatetik 2018an %27,7a izatera igaro da.

ORDAINDU GABEKO ETXKO LANAREN BALIOAREN ETA BPGREN ARTEKO ERLAZIOA (MILA EURO)						
	1993	1998	2003	2008	2013	2018
Ordaindu gabeko etxeko lanak	11.741.137	13.392.118	15.637.783	20.001.264	21.342.098	21.296.076
BPG merkatu-prezioan	25.032.353	36.069.234	49.677.867	68.575.133	64.923.009	76.888.235
Etxeko produkzioa/BPG (%)	46,9	37,1	31,5	29,2	32,9	27,7

Iturria: Eustat. Etxeko lanaren kontu satelitea

Ordaindu gabeko etxeko lanen balorazioa bi faktoreren baitan dago: eskainiriko denbora eta lan horri balio monetario eman ahal izateko erabili den "soldata".

14

Lehenengo faktoreari dagokionez, Eustat-en Denbora Aurrekontuen Inkestara jo dugu, izan ere, lan erreproduktiboek BPGean duten zenbatekoa aipatu inkestaren datuak erabiliz kalkulatzen da. Bada zaintza lanetara dedikaturiko denbora 25 urtetan zerbait handitu da eta bestelako etxeko lanetarako (elikagaiak prestatu, garbiketa, arropa, erosketak) erabili den denbora izan da jaitsiera handia izan duena.

PERTSONA BAKOITZAK BATEZ BESTE EGUNEAN ESKAINITAKO DENBORA (EAE)				
	1993 (hh:mm)	2018 (hh:mm)	Aldea 93/18 (hh:mm)	Aldea %
Elikagaien prestaketa	01:01	00:47	- 00:14	-22,95 %
Garbiketa	00:36	00:30	- 00:06	-16,67 %
Arropa	00:15	00:09	- 00:06	-40,00 %
Erosketak	00:25	00:21	- 00:04	-16,00 %
Umeen zaintza	00:10	00:16	00:06	60,00 %
Jolasak eta heziketa	00:06	00:13	00:07	116,67 %
Helduen zaintza	00:01	00:07	00:06	600,00 %

Iturria: Eustat. Denbora aurrekontuen inkesta.

Bilakaera honen arrazoiei dagokionez, lan batzuen merkantilizazioa aipatuko genuke. Emakumeek enpleguari eskainiriko denbora nabarmen hazi da denbora tarte berean, eta horrek, nahitaez, lan erreproduktiboetako denbora gutxiago eskaini behar izatea ekarri du. Ondorioz, behar batzuk, elikagaien prestaketa kasu, merkatuaren bidez ase behar izan dira, kalitate eskaseko zerbitzu azkarrak sortuz, eta enplegu prekarioa are eta gehiago zabalduz.

Zaintzara orain dela 25 urte baino denbora gehiago dedikatzen dugula esan dugu. Bai haurren zaintzara bideraturikoa, eta baita helduen zaintzara dedikaturikoa. Minutuetan igoera berdina izan arren, proportzionalki helduen zaintzak igoera nabarmenagoa izan du. Izan ere, jendartearen zahartzeak zaintza beharren areagotzea ekarri du, eta horrek isla izan du denboraren erabilerrari dagokionez. Edonola ere, igoera hori ez da zaintzaren merkantilizazioaren azkartzea ekiditeko

bezainbestekoa izan. Egun, Euskal Herrian, zaintza lanetara dedikatzen diren langileak, emakumeak nagusiki, lan baldintza bereziki prekarioetan daude lanean LABek publiko eginiko "Sektore feminizatuen egoera orokorra Hego Euskal Herriko enpleguan" azterketan jaso genuen bezala. Gainera, azken urteetako etxeko langileen kontratazioaren bilakaerak esplotazio matxista eta kolonialeko eredu berriak sortu ditu (Ikus "Etxe barruan ezkutatzen dena. Etxeko langileen errealitatea Euskal Herrian" 2020ko Maiatzeko Ikusmiran).

BPGean lan erreproduktiboek pisua galdu izana aztertzeko bigarren faktorea lan horiei esleituriko "soldata" litzateke. Ezin izan dugu Eustat-ek erabiltzen dituen ordezko soldataren inguruko informaziorik eskuratu, baina soldaten balioaren gutxitzeak eragina izan dezake bilakaera hori aztertzeko garaian, aipatu debaluazioak okerren ordaintzen diren soldatei eragiten baitie bereziki.

Ordaindu eta aitortu gabeko lan erreproduktibo horiek sexuaren arabera aztertuz, nagusiki emakumeek betetzen dituztela esan beharra dugu, EAEn eremu pribatuan egiten diren etxeko eta zaintza lanen %67,2a. Bost urtetan 2013tik sexuaren arabera lan banaketa hori ez da aldatu gainera, eskuartean ditugun datuen arabera igo egin da emakumeek egiten duten lanaren zenbatekoa.

Etxeko lanen artean dauden lan motaren arabera ere aldatu egiten da emakumeek eta gizonak egiten duten lanaren zenbatekoa:

ETXEKO LANAK SEXUAREN ARABERA BANATUTA. EAE (%)				
	2018		2013	
	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Ostatua ematea	38	62	37,6	62,4
Jaten ematea	30,9	69,1	31,2	68,8
Zaintzea eta heziketa ematea	34,7	65,3	35,7	64,3
Arropa eta bestelakoak ematea	17,4	82,6	22,9	77,1
Etxeko produkzioa guztira	32,8	67,2	33,3	66,7

Iturria: Eustat. Etxeko lanaren kontu satelitea

Soldaten garrantzia beherantz


Europako herrialde gehien-gehienaren joeraren aurka, BPGean soldatek duten garrantzia indarra galtzen ari da urtez urte Euskal Herrian, BPGk neurtzen dituen bestelako ondasun ekonomikoen mesedetan. Soldaten garrantziaren galera, azken urteetan emaniko lan merkatuaren prekarizazioarekin lotu beharra dago ezinbestean.

Europako datuekin alderatuta esan bezala gurean kontrako joera ikusten da, eta gainera, BPGean soldatak indarra hartzen ari diren herrialdeak European ongizate eta aberastasun maila altuenetan kokatzen diren herrialdeak dira. Soldaten pisua galtzen ari diren herrialdeak kontratara munduan esku-lan merkearekin lehiatzen dutenak direla esan dezakegu.

SOLDATAPEKOEN ORDAINSARIA BPGEAN EUROPAN (%)													
	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018(p)	2019(p)	2020(p)
HEGO EUSKAL HERRIA	49,4	49,8	49,5	48,9	47,7	46,8	46,3	46,1	45,8	45,7	45,7	45,7	-
EB-27	46,4	47,9	47,3	47,0	47,3	47,3	47,2	46,8	47,0	47,0	47,4	47,5	-
Alemania	49,1	51,4	50,4	50,1	51,1	51,4	51,3	51,6	51,8	51,9	52,8	53,5	55,1
Irlanda	43,6	43,8	41,5	39,7	39,1	38,9	37,3	29,3	30,3	29,3	28,6	28,2	-
Espainiar E.	49,0	49,6	49,1	48,3	46,7	45,8	45,9	45,7	45,2	45,1	45,2	45,9	48,4
Frantziar E.	50,7	52,3	52,1	51,9	52,3	52,4	52,4	51,9	52,1	52,2	52,2	51,2	-
Suitza	54,2	56,4	54,9	55,9	56,6	56,9	56,8	57,6	57,5	57,5	56,6	57,8	-

Iturria: INE, EUROSTAT. GAINDEGIA

OHARRA: Irlandak egoera fiskal berezia du. Ondorioz, bertan kokaturik dauden multinazionalen kopurua altua da, eta horrek bertako egoera ekonomiko eta laborala besteekin alderatu ahal izatea desitxurutzen du.




Iturria: INE, EUROSTAT eta GAINDEGIA

Berrikuntza inbertsioa Europako batezbestekotik urrun

Euskal Herrian Ikerketa eta Garapenera (I+D) bideraturiko gastuak ez du handitzera egin azken hamar urteetan, kontrakoa, 2012. urtetik aurrera gelditu gabe beherantz jarraitzen du. 2019an BPGren %1,78 bideratu zen ikerketa eta garapenera, Alemania (%3,17), Suedia (%3,39) edo EB-27aren batezbestekotik (%2,2) urrun.

Gainera, Europako Batzordearen aginduz egindako azken erregio mailako berrikuntza panelaren arabera (2019), bi urte lehenago baino okerrago dago sailkatuta Euskal Herria. Izan ere, sailkapen horretan Euskal Herria *berrikuntza neurritsua* duten erregioen taldean dago sailkatua, aurreko azterketan izan zuen *berrikuntza indartsuen* erregio sailkapena galduz.

Kontuan izan behar dugu, gurea bezalako herrialde industrializatueta berrikuntza inbertsioak berebiziko garrantzia duela. Izan ere, 2008ko krisiak ondo erakutsi zigun galtzen lehena teknologia baxuko industria izaten dela, eta gainera, nekez erreperatzen dela industria mota hori behin galdu ondoren. 2008aren ostean, beste herrialde batzuek, Frantziako estatua kasu, urte gutxiren buruan berreskuratu zuten galduriko industriaren zati handi bat, eta hemen ez zen horrelakorik gertatu.



Ekonomia ehuna galtzen ari gara

Badira ehun ekonomikoa neurtzeko modu eta iturri desberdinak, errealitatearen parte esanguratsu bat irudikatzeko baliogarriak guztiak. Atal honetan iturri desberdinetara jo dugu, bakoitzak interesatzen zaigun informazio desberdin bat ematen digulako.

Sektore batzuk gainbeheran, besteek goranzko joera

Ondorengo taulara, INEko DIRCE direktorioak eskainiriko datuak ekarri ditugu. Hego Euskal Herrian azken hamarkadan establezimendu kopuruak sektoreka izan duen bilakaera aztertu dugu.

Oro har, establezimendu kopuruak beherantz egin du, 2010/2015 epealdian izanik jaitsiera nabarmenena. Beherantz egin duten sektore esanguratsuenak eraikuntza, garraioa eta biltegiatzea, higiezin jarduerak eta industria ditugu. Sektore hauetan ere jaitsiera nabarmenena 2010/2015 epealdian izan zen, eta nabarmentzekoa da higiezin jarduerak hurrengo urteetan izan duen errekuperazioa beste sektoreek beherantz egiten jarraitu duten bitartean.


Gorantz egin duten sektoreen artean hezkuntza, osasungintza, arte aisialdi eta entretenitzeko jarduerak eta energia elektrikoaren, gasaren, lurinaren eta aire girotuaren hornidura leudeke.


ESTABLEZIMENDU KOPURUAREN BILAKERA HEGO EUSKAL HERRIAN JARDUERA ADARREN ARABERA (%)

	2010/15	2015/20	2010/20	2019/20
OROTARA	-9,2	0,3	-9,0	1,0
Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	-11,6	2,5	-9,3	3,6
Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	5,5	24,8	31,6	4,9
Beste zerbitzu batzuk	-8,3	7,2	-1,7	1,4
Energia elektrikoaren, gasaren, lurinaren eta aire girotuaren hornidura	6,0	23,0	30,3	3,8
Eraikuntza	-25,2	-2,4	-27,0	1,7
Erauzteko industriak	-5,8	-8,2	-13,6	-2,2
Finantza jarduerak eta aseguruetakoa	-3,4	-9,8	-12,9	-0,8
Garraioa eta biltegiatzea	-15,5	-3,4	-18,3	1,7
Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motozikleten konponketa	-8,6	-6,7	-14,8	-1,3
Hezkuntza	12,7	21,2	36,7	6,0
Informazioa eta komunikazioak	-0,9	13,1	12,0	4,1
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	1,7	3,8	5,6	1,3
Jarduerak higiezinekin	-34,6	15,2	-24,6	3,5
Manufaktura industria	-14,6	-6,4	-20,1	-0,9
Osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak	21,5	8,0	31,2	3,5
Ostalaritza	-2,4	2,3	-0,2	0,4
Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	1,3	4,1	5,4	1,7

Oharra: lehen sektorea, herri admin., etxeetako jarduerak eta lurraldetik kanpoko erakundeen adarrentzat daturik ez.

Iturria: INE. DIRCE. GAINDEGIA.





Establezimendu txikiak itxi dira, handien mesedetan

Galdu diren establezimendu gehienak langilerik gabekoak edo langile gutxikoak dira. Azpimarratzekoa da 200 langiletik gorako establezimenduen igoera, tendentzia orokorra beheranzkoa izan denean. Krisiak lantegi txikiei eta handiei modu desberdinean eragin die eta txikien galera handien mesederako izan da.

ESTABLEZIMENDU KOPURUAREN BILAKERA HEGO EUSKAL HERRIAN TAMAINAREN ARABERA

	2010	2020	2010/20	%
OROTARA	233.751	212.813	-20938	-9,0
Soldatapekorik gabe	123.115	110.918	-12197	-9,9
1etik 2ra	64.123	59.315	-4808	-7,5
3tik 5era	22.227	20.655	-1572	-7,1
6tik 9ra	10.451	8.777	-1674	-16,0
10etik 19ra	7.255	6.582	-673	-9,3
20etik 49ra	4.297	4.198	-99	-2,3
50etik 99ra	1.283	1.289	6	0,5
100etik 199ra	642	623	-19	-3,0
200etik 499ra	275	356	81	29,5
500 edo gehiagokoak	83	100	17	20,5

Oharra: lehen sektorea, herri admin., etxeetako jarduerak eta lurraldetik kanpoko erakundeen adarrentzako daturik ez.

Orotara datuak ez ditu horiek aintzat hartzen.

Iturria: INE. DIRCE ETA GAINDEGIA.

Establezimendu kopuruaren bilakaera desorekatua eskualdeka

Eskualdeetako establezimendu kopuruaren datuak osatzeko garaian erabili ditugun iturriek ez dituzten lehen sektorean eta etxeetako jardueretan diharduten establezimenduak eta lurraldetik kanpoko erakundeak aintzat hartzen, baina bai herri administrazioa eta defentsa, INEk ez bezala.

Datu hauen arabera, 10 urtetan Euskal Herrian establezimendu kopuruak %4ko galera izan du.

ESTABLEZIMENDU KOPURUAREN BILAKERA ESKUALDEKA EUSKAL HERRIAN					
	2011/15	2015/20	2011/20	2019/20	kopuru gordina 2020
EUSKAL HERRIA	-6,0	0,7	-4,0		243.930
HEGO EH	-7,9	-2,1	-9,2	-1,3	208.969
IPAR EH	12,4	21,2	45,7		34.961
Araba	-7,6	-3,0	-10,4	-0,9	22.302
Bizkaia	-7,8	-2,4	-9,9	-1,7	87.191
Gipuzkoa	-8,8	-4,2	-12,7	-2,5	55.654
Nafarroa Garaia	-7,1	1,9	-1,7	1,0	43.822
Lapurdi	13,2	22,8	49,2		31.011
Nafarroa Beherea	8,1	12,4	27,0		2.839
Zuberoa	5,7	3,9	14,4		1.111
Amikuze	5,7	6,6	19,4		813
Bidaxuneko lurraldea	9,0	27,1	52,3		539
Errobi	14,8	19,1	47,5		2.614
Errobi Aturri	16,8	31,7	72,9		1.599
Euskal Kostaldea-Aturri	12,7	23,8	49,1		18.208
Garazi Baigorri	8,5	11,5	24,2		1.220
Hazparneko lurraldea	15,6	18,5	41,8		1.194
Hego Lapurdi	13,0	20,6	46,6		7.448
Iholdi Oztibarre	2,7	11,2	25,1		279
Oloroaldea	17,4	-20,7	0,0		23
Salbaterralde	300,0	0,0	300,0		4
Xiberoa	5,6	5,0	14,3		1.020
Nafarroako Ipar-mendebaldea	-4,2	-4,4	-7,2	0,7	4.378
Nafarroako Pirinioa	-8,9	-2,5	-3,4	-0,4	1.067
Iruñea	-7,4	3,2	2,2	1,8	24.135
Estellerria	-6,7	1,7	-4,7	-0,6	2.631
Nafarroa Erdialdeko Ekialdea	-4,5	0,3	-4,0	-0,9	2.097
Erribera Garaia	-10,5	3,3	-8,9	0,7	3.588
Tuteraldea	-6,3	2,4	-5,4	0,0	5.926
Trebiñu		-11,6		-6,1	107
Arabako Ibarrek	-4,0	6,3	-0,7	0,2	420
Arabako Lautada	-6,9	-3,5	-9,6	-1,0	17.547
Arabako Mendialdea	-10,0	-2,6	-14,6	7,2	223
Arratia Nerbioi	-10,6	-2,7	-11,2	-2,2	1.612
Bidasoa Beherea	-9,0	-5,8	-15,1	-3,5	6.243
Bilbo Handia	-7,7	-2,7	-10,0	-1,8	67.559
Deba Beherea	-8,7	-4,7	-13,3	-2,7	3.697
Debagoiena	-9,9	-6,3	-16,1	-2,4	3.599
Donostia	-8,4	-3,1	-11,0	-2,3	28.667
Durangaldea	-7,4	-1,3	-9,8	-1,0	6.904
Enkartzioak	-7,2	-3,0	-9,0	-0,2	2.184
Errioxa Arabarra	-4,0	-1,3	-7,3	-2,5	1.239
Busturialdea	-9,8	-2,3	-12,1	-1,5	3.056
Goierri	-8,8	-4,0	-12,6	-2,8	4.410
Gorbeia Inguruak	-7,2	1,1	-11,6	1,1	704
Kantauri Arabarra	-5,3	-2,7	-8,7	-0,9	2.037
Lea Artibai	-5,4	-7,8	-13,3	-1,9	1.615
Eskumaldea	-4,4	3,8	-0,7	-2,1	4.068
Tolosa	-10,0	-5,3	-15,7	-3,0	3.469
Urola Kosta	-6,5	-6,0	-11,9	-2,4	5.379

Datuek ez dituzte honako adarrak aintzat hartzen: lehen sektorea, etxeetako jarduerak eta lurraldetik kanpoko erakundeen jarduerak. Nafarroako kasuan datuek ez dituzte honako adarrak aintzat hartzen: herri admin. eta defentsa; Derrigorrezko Gizarte Segurantzza. Ipar Euskal Herriko lurraldeetan 2018 arteko datuak hartu ditugu kontuan. Iturria: EAE, EUSTAT (DIRAE); NAF.G, NASTAT; Trebiñu, INE (DIRCE); eta Ipar EH, INSEE (Sirene). GAINDEGIA.

Hego eta Ipar Euskal Herriko datuak oso desberdinak dira. Ipar Euskal Herrian, Lapurdin batez ere, establezimendu kopuruek nabarmen egin dute gorantz azken urteetan, nagusiki barnealdeko deskapitalizazioari eta ekonomia erresidentzialari (hirigintzaren trakzioari) esker. Nolanahi ere, datu hauek tentuz hartu beharrekoak dira. 2009 urteko urtariletik aurrera Frantzia osoan ezarritako *Ekonomiaren Modernizazio Legeak*, ordu arte pertsona fisikoek burutzen zituzten merkataritza, artisautza eta jarduera liberalen arautzea ekarri baitzuen, establezimenduen igoera garrantzitsua eraginez denbora tarte batean.

Hego Euskal Herrian eskualde gehien-gehienek izan dute establezimendu kopuruaren eta ondoriozko ekonomia ehunaren galera. Ahultze nabarmenena honako eskualdeetan izan da: Arabako mendialdean, Bidasoa Behean, Debararrenan, Debagoienan eta Tolosaldean.


Hego Euskal Herria Europaren azken postuetan presio fiskalari dagokionez

Presio fiskalak herrialde batean administrazio publikoaren diru-sarrera guztiek¹ BPGean duten portzentaia neurtzen du, herrialde batean sortzen den aberastasunaren zenbatekoa bideratzen den administrazioa alegia.

Herrialde batek bere herritarrei beharrezko ongizatea eskaini eta herrialdean sortzen den aberastasuna orekatzeko tresna garrantzitsua da politika fiskala. Herrialde batek duen presio fiskala, herrialde horretako politika fiskalaren araberakoa izango da.

Europako datuak aztertuz, EAE eta Nafarroa Garaiko presio fiskala Europako herrialde gehienek oso azpitik dago.

PRESIO FISKALA EUROPAN 2019 (%)




Iturria: Iturriak: geuk egin Eurostat, Eustat, Nastat, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernuak, Kontu-Ganbera eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren datuekin.

OHARRA: Irlandak eagoera fiskal berezia du. Ondorioz. bertan kokaturik dauden multinazionalen kopurua altua da.

Ongizate Estatuak garatuago duten herrialdeek presio fiskal handiagoa dute datuek erakusten digutenez. Danimarka dugu presio fiskal altuena duen herrialdea, eta Irlanda gutxien duena. Nabarmenezkoa da Hego Euskal Herriko ehuneko baxua, Espainiako Estatuaren zein beste herrialde gehienen atzetik.

Europako azken 12 urteetako bilakaera aztertuz, joerak mantendu egin dira.

PRESIO FISKALAREN BILAKAERA EUROPAN 2007/2019 (%)



Iturria: geuk egina Eurostat, Eustat, Nastat, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Kontu-Ganbera eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren datuekin

OHARRA: Irlandak egoera fiskal berezia du. Ondorioz, bertan kokaturik dauden multinazionalen kopurua altua da, eta horrek bertako egoera ekonomiko eta laborala besteekin alderatu ahal izatea desitxurutzen du.

EREDU HAU EZ DA JASANGARRIA

Euskal Herriko biztanleriak gobernu desberdinek markatzen duten norabidearen eta hartzen dituzten erabaki politiko neoliberalen ondorioak jasaten ditu. Azken urteotan langileon eta herritar gehienon ongizateak okerrera egin duela erakusten digute datuek eta hori, politika horien ondorioa da ezinbestean.

Kapitalismoa gero eta bideraezinagoa da. Ondorio larriak uzten ari da mundu osoan zehar, baita Euskal Herrian ere.

Ondorioak ingurumenean

Euskal Herrian dugun eredu sozioekonomikoa ez da jasangarria, ez sozialki, eta ezta ingurumenari dagokionez ere.

Planetaren muga biofisikoak gero eta ageriago ari dira geratzen: bioaniztasun eta ekosistemen galera, energia iturri fosilen eta materialen agorpena, muturreko fenomeno meteorologikoak... eta Euskal Herrian dugun sozioekonomia eredu, kapitalista, prozesu suntsitzaile horien sorburu dugu.

Hona hemen klima larrialdiaren neurgailu diren zertzelada batzuk, sistemak premiazko aldaketa beharra duen erakusle:

- Euskal Herritarron kontsumoa mantentzeko 3 planeta beharko genituzke

Azarna ekologikoak erabiltzen ditugun baliabide naturalek sortzen duten ingurumen-inpaktua islatzen du. Azarna ekologikoaren bidez, jendarte batek behar dituen baliabideak sortzeko eta ekoizten dituenak asimilatzeke erabiltzen diren lur-edo ur-eremu ekologikoki emankorrak irudikatzen dira (laboreak, larreak, basoak, ur-ekosistemak edota airearen bolumena)².

Beraz, azarna ekologikoak zenbat baliabide natural erabiltzen ditugun esaten digu, eta biogaitasunarekin osatzen da datu hori. Izan ere, biogaitasunak, zenbat baliabide natural ditugun esaten digu. Bi neurriak hektarea globaletan (hag) adierazten dira.

Azarna ekologikoaren eta biogaitasunaren arteko erlazioari esker, behar baino zenbat azalera gehiago erabiltzen ari garen ezagutu dezakegu, eta horri, *defizit ekologiko* deitzen zaio. Aldiz, biogaitasunak biztanleriaren azarna ekologikoa gaintitzen badu, *erreserba ekologikoa* dagoela esango dugu.

Lurralde batean defizit ekologikoa badago, esan nahi du lurraldea biogaitasuna inportatzen ari dela lurraldeko aktibo ekologikoen merkataritzaren edo likidazioaren bidez, eta hondakinak isurtzen ari dela denona den atmosferara.

Planetako biztanle bakoitzak biologiko emankorra den lurreko azaleraren 1,63 hag ditu bere kontsumo premiak asetzeko. Bada, lhoberen "Euskadiren azarna ekologikoa 2019" txostenaren arabera, EAE-ko biztanleok 4,32 hag kontsumitzen dugu pertsonako. Beraz, EAE-n pertsonako 2,69 hag-ko defizita dugu, eta honek zera esan nahi du: planetako biztanle guztiek EAE-ko biztanleok bezala kontsumituko balute, 2,65 planeta beharko genituzkeela gure kontsumo ohiturak mantentzeko.

Nafarroa Garaia dagokionez 2012an Nafarroako gobernuak publikaturiko ingurumenaren egoerari buruzko azken txostenean, nafarroko 5,2ko azarna ekologikoa dugula jasotzen da. Beraz, 3,57 hag-ko defizita dugu. Datu honek zera diosku: planetako biztanle guztiek Nafarroa Garaiko biztanleok bezainbeste kontsumitu ezker, 3,19 planeta beharko genituzkeela.

Ipar Euskal Herriko datuak ez ditugu, baina Frantziako azarna ekologikoa 4,9 hag-ekoa da 2020ko datuen arabera. Beraz, Hego Euskal Herriko egoera berdintsuan leudeke Ipar Euskal Herriko biztanleak ere, 3,47 hag-ko defizitarekin eta 3 planeten beharrezarekin.

Euskal Herriko kontsumo eredia ez da jasangarria, eta gainera, munduko beste herrialdeen biogaitasuna xahutzen ari gara datuok erakusten digutenez.

- Berotegi Efektuko Gas (BEG) isuriak munduko batezbestekoaren oso goitik

Berotegi efektuko gas isuriak planeta berotzearen erantzule zuzenak dira. 2015. urtean Parisko itunean planetaren oreka mantendu ahal izateko muga 2 graduko tenperatura igoeran ezarri zuten, gomendioa 1,5 gradutik ez igotzea zela azpimarratuz. Izan ere, aditu guztien arabera 2 graduko tenperatura igoerak atzera bueltarik ez duten ondorio larriak izango lituzke Lurrean.

Bide horretan, Europako parlamentuak 2050. urterako karbono neutraltasuna lortzea jarri zuen helburu gisa, eta 2030. urterako berotegi efektuko emisioak %55 jaisteko helburua ezarri zuen.

